

Ebazpena: R 1/2023

Espedientea: 14/2013

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 27an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita OTOPSLren zerga-egoitza zehaztea, atzeraeraginezko ondoreekin (1999an sozietatea eratu arte nominatiboki eskatzen direnak), eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 14/2013 espedientezenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- OTOPSL 1999ko martxoaren 25ean eratu zuten AFG eta JSFM bazkideek, bakoitzak % 50 zuela. Azken bazkide hori administratzaile bakar izendatu zuten, eta sozietatearen egoitza soziala Logroñon ezarri zen.

Objektu soziala hau da: *telefono bidezko zerbitzuak eta ahotsa, datuak, irudiak eta, oro har, telekomunikazioak transmititzearekin eta tratatzearekin zerikusia duten gainerakoak merkaturatzea.*

1999ko apirilaren 6an, alta eman zitzaion ZAEAn, lan-atxikipeneko betebeharretan, BEZean, sozietateen gaineko zergan eta ekonomia-jardueren gaineko zergan (kuota nazionala).

1999ko maiatzaren 3an, ZAEAk behin betiko IFK eman zion OTOPSLri, eta zerga-egoitza eta egoitza soziala berbera ziren, alegia, aipatutako Logroñoeko helbide hura.

2.- Eratu zenetik 2014ra arte, sozietateak BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren aitorpenak aurkeztu zizkion ZAEARI, eta bere eragiketa-bolumenaren proportzioaren % 100 aitortu zion Estatuari.

Espedientean jasota dagoenez, 2006tik 2013ra (beste ekitaldietako datuak ez daude jasota) 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu zuela aitortu zuen OTOPSLk.

3.- OTOPSLk zerga-egoitza izan duen Logroñoeko lokala bere jabetzakoa izan zen 2001eko martxoaren 15ean eskuratu zenetik 2004ko otsailaren 18ra arte. Egun horretan, administratzaile bereko beste sozietate bati eskualdatu zitzaion lokala, eta ordutik errentari gisa egon da bertan.

4.- 2010eko maiatzaren 4an, ZAEAk 2007-2009 urteetako BEZa eta sozietateen gaineko zerga ikuskatzeko prozedura hasi zuen, 2009ko abenduaren 31n BEZagatik eskatutako itzulketa ebaluatze aldera. Horren ondorioz, 2007ko eta 2008ko BEZari buruzko adostasun-aktak sinatu ziren 2010eko uztailaren 12an.

2011ko martxoaren 11n, 2007ko eta 2008ko BEZa eta sozietateen gaineko zerga ikuskatzeko beste prozedura bat hasi zen, konpentsatu beharreko BEZaren saldoa ebaluatze aldera. Horren itzulketa 2009ko abenduaren 31n eskatu zen, eta 2012ko urriaren 31n amaitu zen, hiru desadostasun-akta sinatuta. Akta horiek

kontabilitate-irregulartasun batzuen zerga-ondorioak, obligaziodunak jasan gabeko zerbitzuak eta abar erregularizatzen zituzten. Prozedura horretan, zehapen-prozedura bat hasi zirtzaion OTOPSLri, ikuskapen-jarduketa oztopatzeagatik edo zailtzeagatik.

5.- Obligaziodunak 2012ko maiatzaren 2an aurkeztu zuen alegazio-idazkian, aipatutako ikuskapen-prozeduran, alegatu zuen ZAEAk ez zuela eskumenik, zerga-egoitza benetan Bilbon zuelako.

6.- 2012ko azaroaren 23an, OTOPSLk BFAko Zerga Zentsuen Atalari zerga-egoitza zuzentzeko eskatu zion, hau da, Bilbo (Bizkaia) zela zehazteko.

7.- 2013ko urtarrilaren 16ko idazkian, BFAk egoitza Bilbora aldatzea proposatu zuen.

8.- ZAEAk, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Errioxako Ordezkaritza Berezien bidez dagozkion egiaztapenak egin ondoren, ezezkoa erantzun zuen 2013ko apirilaren 29an.

9.- 2013ko ekainaren 4an, BFAk OTOPSLren zerga-egoitzari buruzko gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari, eratu zen egunera arteko atzeraeraginezko ondoreekin.

10.- Espedientea ohiko prozeduraren bidez izapidetu da, eta hasierako alegazioen izapidea eman zaio ZAEARI, eta amaierako alegazioen izapidea, berriz, ukitutako guztiei, hilabeteko epean, hurrenez hurren.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek adierazten du Arbitraje Batzordearen funtzioa dela zergadunen egoitza dela-eta sortzen diren eztabaidak ebaztea.

2.- Obligaziodunaren helbideratzean kontuan hartu behar diren irizpen-elementuak.

Zerga-egoitza erabat faktikoa den heinean, alderdiek *egiaztatutako* egitatezko inguruabarrak laburbilduko ditugu, eta, ondoren, horien guztien balorazio juridiko bateratua egingo dugu zerga-egoitza zehazterakoan, sozietatearen eta haren jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta.

Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko epaiak (ECLI:ES:TS:2015:2707) adierazten duenez, indarrean egon ez arren, eta indarrean dagoen araudian *administrazio-kudeaketaz eta negozioen zuzendaritzaz* zer ulertu behar den definitzerik ez dagoenez, nolabaiteko interpretazio-indarra mantentzen dute 2631/82 Errege Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako irizpideek. Artikulu horrek honako hauei ematen zien garrantzia: zuzendaritza garatzeko administratzaile edo kudeatzaile kopuru egokia bizi diren tokia, kontratazio arrunta egiazta daitekeen bulego baten tokia, eta kontabilitatea eramaten den eta eragiketa sozialak behar bezala egiaztatzeko eta balioesteko behar den dokumentazioa biltzen den tokia.

2.1.- Administratzailearen bizilekuari dagokionez

ZAEAk jakinarazi du bere datu-basean administratzailearen egoitza Gasteiz (Araba) dela. Egoitza hori bera jaso zen sozietatea eratzeko eskrituran eta EJZren aitorpenean.

Bestalde, BFAk, bere datu-basean administratzailea helbideratuta dagoela eta PFEZren aurkezlea dela adierazi beharrean, 2003ko irailaren 15ean Getxon (Bizkaia) bere irabazpidezko sozietatearentzat etxebizitza bat erosi izanari egiten dio aipamena, bai eta dibortzio-prozesuarekin lotutako hainbat dokumentaziori ere, non aipatutako etxebizitza banatu beharreko hartzeakoaren zati gisa agertzen den. Era berean, azpimarratzen du ondorengo harreman baten ondorioz izandako alaba Bizkaiko ikastetxe batean eskolatu zela 2013-14 ikasturtean.

Obligaziodunak ez du modu frogagarrian egiaztatu Bizkaian duela bizilekua.

JSFM jauna da OTOPSLren administratzaile bakarra, eta baita Bilbon, Madrilen, Logroñon eta Bartzelonan egoitza duten beste sozietate batzuen ere, zortzirena gutxienez.

2.2.- Logroñoko bulegoari dagokionez

ZAEAk zortzi bisita egin zituen Logroñoko bulegora, erregularizatu beharreko urteak (2007-2009) baino ez oso geroago (2010 eta 2011), ikuskapen-prozedura zela eta, hain zuzen ere.

Horietan, honako inguruabar hauek egiaztatu zituzten:

a.- Administrari batek, IH andreak, eta AFG bazkideak egin zieten harrera.

b.- Batez ere bezeroaren online-arretara, administraziora eta harrerara zuzendutako eremuan, ordenagailuak dituzten bi mahai daude, eta horietako bakoitzean langile bat.

c.- Komunikazio-gelan lau armairu daude, non telekomunikazio-sareekiko konexioak gordetzen diren, bai sozietatearenak berarenak, bai beste operadore batzuenak. Horietan *raks* deiturikoak daude, edo instalazio horietan kokatutako ekipamenduak kanpoko beste batzuekin kableatu bidez lotzen dituzten konexio multzoa.

d.- Atzealdeko gela batean sareko administrazioko, ustiapeneko datu teknikoetako eta sareko gorabeheretako bi lanpostu daude, eta horiek ere okupatuta daude.

Horrez gain, ZAEAk TSAk emandako informazioa erantsi du. Bertan, OTOPSLrekin sinatutako kontratu asko jaso dira, eta horien egoitza Logroñokoa da (2003ko uztailaren 25etik 2010eko uztailaren 8ra sinatutako 17 kontratu).

Kontratu multzo horrekin batera, emandako informazioa aurkezteko idazki bat dago, eta, bertan, OTOPSLri zerbitzua non ematen zaion zehazten da, edo, bestela esanda, non dagoen TSAren sarea OTOPSLren sarearekin lotzeko puntua, zeina aldatuz joan baita urteetan zehar.

Hala, bada, 2005. urtearen amaieran, interkonexio-puntu bakarra zuen (Pdl) Logroñon, eta beste bat Madrilen; aldiz, 2006tik aurrera, Bartzelonan eta beste 13 edo 15 gehiago zenbait probintzian. 2012. urtearen hasieran, Madrilgo interkonexio-puntua soilik zuen.

Logroñoko Pdl-ak (sareko interkonexio-puntua) markatzen du OTOPSLren jardueraren hasiera, hots, OTOPSL telekomunikazioen merkatuan sartu ahal

izatea ahalbidetzen eta justifikatzen du, eta Errioxako Garapen Ekonomikorako Agentziaren (ADER) dirulaguntza espedientearen xede da puntu horren instalazioa.

Sozietate horren faktura guztietan Logroñoko nodoa aipatzen da.

Gainera, ZAEAk egiaztatu du sozietateak ez duela langilerik Bilbon.

Egiaztapen-aldietan (2007-2009), Errioxan helbideratutako hiru teknikarik, Errioxan helbideratutako administrari batek eta Madrilan helbideratutako salmenta-zuzendari batek osatu dute plantilla. BFAren arabera, sozietateak kategoria administratiboko hiru langile ditu; horietako bik Logroñon egiten dute lan eta besteak Tarrasan.

2.3.- Kontabilitatea eramateari eta fakturak jaulki eta jasotzeari buruz.

BFAk 2013ko maiatzaren 30eko txostenean, egun berean Bilboko bulegora bisita egin ondoren, adierazi zuen kontabilitate-liburuak Bilboko bulegoan daudela legeztatuta, kontabilitatea MAk eramaten baitu kanpotik; Bilbokoa da MA.

Halaber, fakturak Bilbotik jaulkitzen dituzte lotutako beste sozietate batzuetako langileek, eta Bilbon gordetzen dira. Fakturretan Logroñoko egoitza jasotzen da, bezero eta hornitzaile gehienek sozietatea identifikatzeko erabiltzen duten egoitza delako.

Jasotako fakturei eta gainerako gutunei dagokienez, Bilbon edo Logroñon jasotzen dira, baina Bilbon gordetzen dira.

ZAEAk hau dio: *«Ekitaldi horietan, aurkeztutako aitopenetan harremanetarako pertsona eta telefono-zenbaki gisa BMRG andrea ageri da, eta aurkezle eta*

kolaboratzaile gisa, berriz, MA bulegoko PMRG jauna, hau da, OTOPSLren lege-eta zerga-aholkularia».

ZAEAREN arabera, halaber, Logroñon egindako prozeduran, nahitaezko liburu eta erregistro guztiak erakutsi zituen enpresak.

Zerga-egoitzara egindako zortzi bisitetan egiaztatu zen hornitzaileengandik jasotako fakturak Logroñoko egoitzara zuzendu zirela.

ZAEAK Bilbora egindako bisitan egiaztatu zenez, jaulkitako fakturretan Logroñoko egoitza agertzen zen eta horietako asko Madrilan jaulkitzen ziren.

Era berean, jasotako faktura gehienetan Logroñoko edo Madrilgo egoitza azaltzen da.

Obligaziodunaren arabera, jaulkitako fakturak Bilbotik bidaltzen dira, eta gaur egun Bilboko helbidean daude artxibatuta. Fakturak automatikoki sortzen dira horretarako sortutako software baten bidez. Horrela, Bilboko administrariak akatsak berrikusten dituzte, eta ondoren, inprimatu eta gutun-azaletan sartzen dituzte. Kopia bat bidali eta beste bat artxibatu egiten dute Bilboko artxiboetan.

Jasotako fakturak eta gainerako gutunak Bilbon edo Logroñon jasotzen dira (azken horiek astero bidaltzen dira Bilbora) eta Bilbon gordetzen dira.

Obligaziodunaren arabera, bezeroekiko kontratazioa Bilbon egiten da.

2.4.- Bazkideek eta administratzaileak non betetzen dituzten funtzioak.

BFAK txostenean azpimarratzen duenez, *badirudi negozioaren administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza Bilbon eta Bilbotik egiten dela hura eratu zenetik, eta*

bi bazkideak beti jar daitezke harremanetan edozein unetan eta lekutan bilduz edo telefonoz, enpresari eragiten dion edozein erabaki hartzeari begira.

ZAEAk emandako kontratuak administratzaileak sinatu ditu sozietatearen zerga-egoitzan.

Ez da aurkeztu sozietatearen akta-liburua.

2.5.- Beste datu interesgarri batzuk.

BFAk dio obligaziodunak banku-kontu ugari dituela irekita finantza-erakunde ugariaren Bilboko sukurtsaletan.

ZAEAk zehaztu duenez, Logroñon ere kontuak edukitzeaz gain, kontu guztietan ageri den sozietatearen egoitza, eta, beraz, komunikazioak helarazten diren lekua, zerga-egoitza da.

BFaren arabera, obligaziodunak beti adierazi zion ZAEAREN ikuskaritzari ez zegoela ados Logroñoeko jarduketei dagokienez, eta prozedura ZAEAREN Bilboko ordezkartzan garatzeko eskatu zuen.

Hala ere, Logroñoeko ZAEAk dio ez zela jarduketen garapenaren aurkako jarrerarik egon.

3.- Zerga-egoitzari buruzko balorazio juridikoa.

3.1.- Gaiari sakondu aurretik, argitu behar da oraingo prozedura obligaziodunaren zerga-egoitzari buruzkoa dela soilik, eta ez haren eragiketen kokapenari buruzkoa, zeinaren bidez zerga-ordainketaren proportzioa zehazten baita. Beraz, prozeduraren emaitzak ez du aldatuko zergapekoak aurreko

ekitaldian 6.000.000 eurotik edo 7.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena aitortu duen tributu eta ekitaldiei dagokienez ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumena (dagokion urtearen eta urte horretan indarrean zegoen zenbatekoaren arabera), ez eta % 100ean lurralde erkidean gauzatu dituen eragiketei dagokienez ere; izan ere, administrazioaren egiaztapenak ez du aldatu eragiketa-bolumenaren zenbateko hori edo eragiketa-bolumenaren proportzioa.

3.2.- Aurkeztutako frogen balorazio orokorrak, sozietatearen ezaugarriak eta jarduera kontuan hartuta, azaldu diren baldintzetan, ahalbidetzen du ondorioztatzea obligaziodunaren zerga-egoitza Logroñon zegoela egiaztatutako aldian.

Alde batetik, BFAk berak ez du sozietatearen jarduera Bizkaian kokatzen, hau adierazten baitu: *ezin da modu zehatzean baieztatu jarduera non gauzatzen den.* Eta azpimarratzen duenez, *hodeian ematen eta gordetzen diren zerbitzuak kokatzea zaila da, eta hori aztertzea ez da txosten honen xedea.* Orobat, ez du administratzailearen Bizkaiko zerga-egoitza egiaztatzen, eta ez du bere lana lurralde horretan kokatzen; izan ere, baieztatzen duenez, beste bazkidearekin edozein lekutan bildu daiteke edo telefonoz jar daiteke harekin harremanetan, enpresarekin zerikusia duten erabakiak hartzeari begira.

Aitzitik, ZAEAk aitortutako zerga-egoitzara egindako bisitetatik —gainera, 2010ean eta 2011n egin ziren, hau da, obligaziodunarekin desadostasuna sortu aurretik— ondorioztatzen da sozietateak kokapen horretan bazituela bezeroekin merkataritza-jarduerak egitearekin koherenteak ziren baliabide materialak eta giza baliabideak (bereziki nagusiarekin, alegia, Telefonicarekin), bai eta Errioxako Garapen Ekonomikorako Agentziarekin (ADER), Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordearekin eta Industria, Turismo eta Merkataritzako Idazkariordezarekin jarduera nabarmenak eta jarraituak —sareko interkonexio-puntua instalatzea ahalbidetu zion dirulaguntza lortu zuen, eta horri esker,

telekomunikazioen merkatuan sartzeko aukera izan zuen– egitearekin koherenteak ziren baliabide materialak eta giza baliabideak ere.

OTOPSL talde (Dialoga) batean txertatzeak –zeinaren gainerako kide gehienek Bizkaian baitzuten egoitza– ez du haren egoitza alde zuzenetik zehazten, nortasun juridikoaren indibidualtasuna dela eta, ez eta zerbitzu globalen segmentazio posible bat onartuz gero ere.

Bizkaiko kanpo-aholkulari batek zerga-aitorpenak egiteak ere ez du indargabetzen sozietatearen administrazio-kudeaketa materiala (fakturak jaulki eta jasotzea, kontratazioa, dokumentazioa zaintzea) Logroño bulegoan egiten dela ondorioztatzea, 2010ean eta 2011n egindako bisitetan lortutako probak kontuan hartuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

- 1.- Deklaratzea ez dela bidezkoa OTOPSLren zerga-egoitza Bizkaira aldatzea.
- 2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta OTOPSLri.